



II. Aplikazio-arauak.

1. Orokorrean, obra-baimenak arautzen dituen Ordenantzan adierazitakoarekin bat etorriko behar du panteoiak edo hilobiak eraikitze baimenak eta, oro har, Udal-hilerrian edozein obra egiteko baimenak.
2. Hileta-eskubidea 5 urtez luzatuko balitz, hasieran jarritako 10 urteko hileta-eskubidea amaitu izanaren ondorioz eta, osasun-arrazoiak direla-eta, ezinezkoa izango balitz gorpuzkinak ateratzea. Zenbatekoa: Ordenantza hau arautzen duen tarifaren %50a, hau da, nitxo 10 urtez edukitzeko hileta-eskubidea.

4. epigrafea. Auto-taxien garraio-zerbitzua

1. Egitate zergagarria: Honako kontzeptuak dira egitate zergagarria:
 - a) Lizentziak ematea.
 - b) Lizentziak transmititzeko baimenak, legearen arabera eta indarrean dagoen araudiaren arabera egiten badira.
2. Tasa sortu eta ordaindu beharko da, Udalak lizentzia ematen duenean edo transmisioa baimentzen duenean, edo ibilgailua aldatzea baimentzen duenean.

I. Tarifak.

Kontzeptua	Kuota
Baimenak ematea, izapidetzea eta eskualdatzea.	9.025,31 €
Ibilgailuak erabiltzea eta ustiatzea. Ibilgailuak ordeztzea.	69,63 €

II. Tarifa aplikatzeko arauak.

1. Honako hauek tasak ordaindu behar dituzte nahitaez:
 - a) Baimena eskuratu duen pertsonak tarifak ordaindu beharko dituzte baimena eman, izapidetu, erabili eta ustiatzeagatik.
 - b) Baimenaren titularrak tarifak ordaindu beharko ditu, baimendutako ibilgailua aldatzen duenean.
 - c) Baimena eskualdatzen bada, baimenaren titular berriek ordaindu beharko dituzte tarifak.
2. Eskualdatzeko baimena eskaini bada, oro har, eskualdatze-tarifa arrunta ordaindu beharko da; salbuespen izango dira, ordea, baimena titularra hil delako eskualdatu bada eta onuraduna hildakoaren jaraunslea bada edota titularra erretiratu, eta haren ondorengo batek eskuratzen badu baimena.
3. Baita ere oinordekoen faborez bizien arteko eskualdaketak salbuetsiak egongo dira, lanbidea betetzea garaizten duen etorriko gaigabezi baten ondorioz badatoz, eta hau, Gizabanakoen Autonomia eta menpekotasun egoeran dauden pertsonenganako Laguntzaren Sustapenerako abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 26. artikuluko menpekotasun graduei berdineskorra bada, eta eskualdaketaren onuradunak minusbaliatua bere kargu hartzen badu aipaturiko legeko 18. artikuluko agindua bezala.
4. Ibilgailuaren ordeztzea tarifatik salbuetsia egongo da, Ibilgailu berria pertsona minusbaliatuei egokitzen den kasuan.

5. epigrafea. Azokako, azoka txikiko etab. etako zerbitzuak

Udalerri honetako salmenta-postuek, salmenta-etxetxoek, bankuek eta gainerako baserritar-azokek eta azoka txiki-ek egitate zergagarria dute.

I. Tarifa.

Kontzeptua	euro
Baserritar-azoka: baserriko produktuak saltzeko postuak.	Doakoa
Baserritar-azoka: bestelako produktuak saltzeko postuak; mahai eta egun bakoitzeko.	3,22 €
Azoka txikia: zapatuetan eta egun jakinetan produktuak saltzeko postuak: m ² eta zapatuko.	3,22 €

II. Aplikazio-arauak.

1. Zapatuko azoka txikiaren kasuan, asteko tasak hilabetez hilabete likidatu eta sortuko dira, erabili den denboraren arabera. Gainerako kasuetan, aldez aurretik ordaindu beharko da.
2. Salmenta-etxetxoak, postuak, eta gainerako zerbitzuak idatziz eskatu beharko zaizkio Durangoko Udalarri.